

Igor Ventureira Sarasola

F maila • 2 aipamena

Kaixo!

Igor naiz, mutil alaia. 2011ko uztailak 14ean jaio nintzen. Beasaingo La Salle ikastetxean ikasten dut. Asko disfrutatzen dut kirola egiten, gehien bat, futbola. Nire idazlanaren izena "Arrantzale ausarta" da, ea gustuko duzuen!



ARRANTZALE AUSARTA

Bazen behin, arrantzale langilea eta ausarta. Arrantzaleak Martin izena zuen. Lau seme alaba zituen. Martin behartsua zen eta beti arrantzatzeraz joaten zen bere familiari janaria ekartzeko.

Eguraldi txarra egiten zuen, olatu handiak, haize indartsua. Zerua lainotuta eta beltza zegoen. Ekaitza egiten zuen baino, hala ere, itsasora sartu zen bere barku txikiarekin. Arrantzatzen ari zela arrain txiki eta dizdiratsu bat harrapatu zuen. Nekatuta eta triste bueltatu zen etxera. Emaztea, sukaldatzen ari zela zerbait arraroa sumatu zuen arrai horretan. Halaxe izan zen, sukaldatzerakoan arrainaren barruan harri txikiak aurkitu zituen, diamanteak ziren.

- Aiba ze dizdiratsuak diren! - esan zuen Jon txikiak.

- Zer egin dezakegu harri txiki hauekin? - galdetu zion Peruk bere aitari.

- Ba, ezdakit. Harri txiki hauek oso baliogarriak dira eta ondo zaindu behar ditugu

- esan zuen aitak.

- E! Zergatik ez ditugu azokan saltzen? Bihar azoka dago eta agian saltzea lortzen

badugu diru pixka bat lortuko dugu, nahi adina janari erosi ahal izateko eta

lasaiago bizitzeko. - bururatu zitzaion emazteari.

- Hori bai ideia ona!- esan zuen Mirenek.

Hurrengo egunean azokara joan ziren. Urduri zeuden, izan ere, gutxitan izango zuten horrelako aukera paregabea. Beraien postutxoa jarri eta nor etorriko zain geratu ziren 6rak, itxaropentsu. Azkenean, diamanteak saldu eta diru asko lortu zuten. Hortik aurrera lasaiago bizi izan ziren eta Martinek ez zuen egunero arrantzatzeraz joan beharrik izaten eta familikoekin egoteko denbora gehiago izaten zuen.